

EUSKARAREN SENTSIBILIZAZIORAKO PILULA



- 01 'AUSKALO'
- 02 ZERNONIKUSI
- 03 BESTE HIZKUNTZA KOMUNITATEAK
- 04 EUSKARALDIA

‘AUSKALO’

Oso maiz erabiltzen dugu euskaldunok ‘auskalo’ hitza. Euskaltzaindiaren hiztegiaren arabera, iHitz egiten duenak zerbait inondik ere ez dakiela adierazteko erabiltzen du.

NONDIK DATOR, ORDEA?

- Interjektzio bat edo hitz elkartu bat dela dio Euskaltzaindiak, gaztelaniako **“a buscarlo”** esapidetik eratorritako hitza omen da.

ANTZEKO ADIBIDEAK

- Mesanotxe
- Doministiku
- Etxafuegos

Bistan da maileguan hartutako hitza dela (‘mesa de noche’), baina hori ez da oztopo erabilerarako eta egokitasunerako. Badira euskaraz gisa horretako zenbait hitz lexikalizatu; batzuek hiztegirako bidea egin dute (mesanotxe, etxafuego, doministiku (< lat. dominus tecum), auskalo (<a buscarlo)..., eta beste batzuek ez (arrozkoletxe, mekaguen... nahiz azken hori Orotariko Euskal Hiztegian badatorren





ZERNONIKUSI

Hain da zabala gaur egun ikus-entzunezkoen eskaintza, non, askotan, ez dakigun ZER eta NON ikus dezakegun. Bada, "arazo" txiki honi aurre egiteko plataforma da ZerNonIkusi.


Plataforma guztiak hartzen ditu kontuan eta euskarazko edukiak zein plataforman dauden ikusgai jasotzen da bertan. Ez hori bakarrik, euskarazko eduki-sortzaileak (sare sozialetakoak) ere daude bertan zerrendatuta, euren kontuen izen eta guzti.

Aplikazioa deskarga daiteke Google Play bidez.

ZerNonIkusi


FILMAK • ZINEMA • FILMAK • ZINEMA • FILMAK • ZINEMA

02



BESTE HIZKUNTZA- KOMUNITATEAK

Katalanaren erabilerari buruzko azken ikerketaren arabera:



1. Katalanak **267.600 hiztun berri** irabazi ditu
2. Katalanak **117.000-261.000 hiztun sekundario** irabazi ditu, beti beste hizkuntza batzuekin konbinatuta.
3. Hiztunen hazkundera populazioaren hazkundera baino txikiagoa da (398.500 pertsona). Horregatik, hiztun kopuru absolutuan hazi arren, **katalanaren ehunekoak mantendu edo jaitsi egin dira.**

4. **Katalanaren ezagutza-mailak gaztelaniarena baino txikiagoa** izaten jarraitzen du adin guztietan ((gaztelaniara pasatzeko joera).

5. Adinak, jatorri geografikoak eta erabilera-esparruak eragiten diete **hizkuntza-erabilerei**

EUSKARALDIA

Bereziki ariketa edo praktika kolektibo bat da. Ariketa horretan maila pertsonalean edota kolektiboan parte hartu ahal izango da.



ENTITATEENTZAT
IZEN-EMATEA
ZABALIK!



HARTU PARTE!

